

## Hotz komertzialeko aparatuentzako etiketatze energetikorako araudi berria

Uztailaren 1ean sartu da indarrean hotz komertzialeko aparatuen etiketatze energetikoa erregulatzen duen batzordearen UE 2015/1094 erregelamendua. Honek, praktikan, zera esan nahi du, Espainian G baino gorako sailkapen energetikoa duten aparatuak ezin izango direla saldu.

Hurrengo lerroetan araudi berri hau zertan datzan eta ostalaritzan diharduten profesionalentzat zein abantaila dakartzan azalduko dizugu.


### Zein da araudiaren helburua?

Hozte aparatu profesionalak kontsumitzen duten energiak Europar Batasuneko elektrizitatearen eskari osoaren zati esanguratsua betetzen du. Sailkapenaren normalizazioaren eta eraginkortasun energetikoaren etiketatzearen bitartez, kontsumo gutxiagoko produktuak eskuratzeko orduan, ostalariei erabakiak hartzea errazten dien beharrezko informazioa eskaintzea bilatzen da. Era berean, fabrikatzaileek euren produktuen eraginkortasun energetikoa hobeto ezagutzeko eta xede araudi honek eta hau ezartzean, ondorio bezala aurrezpen energetiko esanguratsua eta CO<sub>2</sub> igorpenen murrizketa izatea espero da.

### Zein informazio agertu behar da etiketan?

Hozte aparatu profesionalen eraginkortasun energetikoaren etiketek etxeko tresnen kontsumoa adierazteko erabiltzen diren etiketen formatu berdintsua dute eta honakoa azaldu beharko dute: aparatuaren sailkapen energetikoa, honen urteko energia kontsumo normalizatua urteroko KW/h-tan, hozte eta izozte konpartimentuen bolumen garbia guztira litrotan eta mota klimatikoa.

### Eraginkortasun energetikoaren etiketen informazioa nola interpretatu



- 1.- Eraginkortasun energetikoaren sailkapen eskala. A sailkapenak, 15 eta 25 arteko IEE eraginkortasun energetikoaren indizea adierazten du (gehieneko eraginkortasun energetikoa) eta G sailkapenak 95 eta 115 arteko indizea (gutxienezko eraginkortasun energetikoa). Araudia etengabeko garapenean egongo da eta gradualki, indize altuenak dituzten tresnak ezabatzea aurreikusten du (2016tik 2019ra bitartean). Gainera, 2019tik aurrera, eraginkortasun energetikoaren balio berriak barnerratzeko helburua du (A+, A++, A+++).
- 2.- Aparatuaren sailkapen energetikoa. A sailkapenak gehieneko eraginkortasuna adierazten du, G sailkapenak berriz, gutxienezkoa.
- 3.- Urteko energia kontsumoa, urteroko KW/h-tan.
- 4.- Hozte konpartimentuen bolumen garbia guztira.
- 5.- Izozte konpartimentuen bolumen garbia guztira.
- 6.- Aparatuaren mota klimatikoa: Mota klimatikoak neurrak zein baldintzatan egin den adierazten du. Hozte tresna profesionalen kasuan, arauak 4. mota klimatikoa ezartzen du. (4. mota klimatikoa: +10°C eta +30°C arteko giro-tenperaturak).



### Etiketatzeko sistema berriaren abantailak

Etiketatzeko mota hau, dagoeneko industrialak ez diren etxetresna elektrikoaren eraginkortasun energetikoari buruzko informazioa emateko derrigorrez erabiltzen zena, hotz komertzialeko produktuak eskuratu baino lehen, kontsumitzaileei erabakiak hartzea erraztuko die.

Ostalaritzan eta sukaldaritzan diharduten profesionalentzat eraginkortasun energetiko handiagoko hotz komertzialeko aparatuak eskuratzeko, urteko elektrizitate gastuan aurrezpen esanguratsua eragin dezake.

### Fagor Industrialek eraginkortasun energetikoaren alde egiten du apustu

Fagor Industrialen, gure bezeroei euren negozioak era eraginkorrenean garatzen laguntzen dieten erantzunak bilatzen ari gara etengabe. Laster, gas hidrokarburoak dituzten gure hotz komertzialeko belaunaldi berria ezagutzera gonbidatuko zaitugu, kontsumo arduratsu eta eraginkorra sustatzen duten produktuen katalogo berria gara dezagun ahalbidetu diguna, %70 gutxiagoko kontsumo energetikoekin.



ONNERA GROUP



Together we evolve

[www.fagorindustrial.com](http://www.fagorindustrial.com)